



MEMORIA

2017

ERNEST LLUCH
KULTUR ETXEA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN



donostia
kultura




ERNEST LLUCH KULTUR ETXEA



Juan Jose Millásen hitzaldia.

Ernest Lluh Kultur Etxean literatura eta eztabaida izan ziren berriz ere protagonistak. Hainbat liburu aurkezpen, solasaldi eta ziklo izan ziren kultur etxearen ildo nagusian urtean zehar. Aipagarrienak hauek lirateke: **Aritz Gorrotxategik** bere ipuin liburu berria aurkeztu zuen **Harkaitz Canorekin** solasean, eta gauza bera egin zuen **Ana Malagon Zalduek Leire Palacio**ekin. Ez ziren hauek aurkezpen bakarrak izan: **David Trueba** eta **Juan José Millás** beren nobela berrien inguruan aritu ziren, eta **Bernardo Atxagak**, **Eider Rodriguezek**, **Anjel Lertxundik** eta **Toti Martínez de Lezeak** eztabaida ezberdinetan parte hartu zuten.

Karmelo C. Iribarren poeta donostiarrak liburu aurkezpen bikoitza egin zuen apirilean, literatura programa bereziaren barruan: **Pequeños incidentes** eta **El amor, ese viejo neón** poema liburuen harira



Corpus, Sara Morante

solasean aritu zen **Juan Velázquez** eta **Itziar Mínguez**ekin.

Ezin ahaztu ere **Beste Hitzak – Other Words** egitasmoarekin izandako elkarlana: **Elur gainean txori hanka arinak** saioan **Gerard de Jong** idazle frisiarra **Iñigo Astiz** eta **Juan Luis Zabala** euskal idazleekin aritu zen solasean, hizkuntza gutxituetako idazleen erronkei buruz.



Superviviendo, Asier Hormaza

Diziplina ezberdinen arteko elkarrizketa Ernest Lluh Kultur Etxearen beste ildo nagusietako bat da. **Erakusleihoa** programa da, ziurrenik, ildo hau ondoen islatzen duena: formatu txikiko antzezkiak, irakurketa musikatuak, performanceak... Hauen guztien espazioa da Erakusleihoa. 2017an **Beñat Achiary** eta **Didier Laserre**ren **Zerutik urrun**, **Metrokoadroka** Kolektiboaren **Mr Señora**, **Jose Kruz Gurrutxagaren Declaración de Guillermo**, **Kancaneo Teat**oren **Ni pa ti ni pa mí** edota **Asier Hormaza** eta **Alazne Etxeberriaren** bakarriketak pasatu dira programa honen oholztatik.

Zinemak ere badu hitzordua Ernest Lluh Kultur Etxean astelehenero. 2017an, gainera, askoz erabiltzaile gehiago izan ziren eta argi geratu zen hilabetero eskainitako zikloek publikoaren txaloa jaso zutela, saio guztiak bete baitziren.

2017an **erakusketak** indartu egin ziren, elkarlan eta ekoizpen proiektu berriei: **Beatriz Setien**en **Akuarelak**, **EHUko Arte Ederretako Masterraren** ikasleen **Amor fati**, **Eslovakiako Enbaxadarekin** elkarlanean **Eslovakia magikoa** eta **Sara Morante** ilustratzailearen **Corpus** proiektuek bisitari ugari izan zituzten.



ERNEST LLUCH KULTUR ETXEA

Arlo ezberdinetako pertsona aipagarrien lana, ibilbidea eta jarduna hobeto ezagutzeko aukera ematen du **Solasean...** programak. 2017an **Felipe Benítez Reyes** poeta eta idazlea eta **Kike Amonarritz** hizkuntzalari eta komunikatzailea izan ziren gonbidatuak.

Ernest Lluch Kultur Etxeak zientziaren inguruko eztabaida ere sustatu zuen eta horretarako Zientziaren bide berriak izeneko programa bultzatzen zuen Donostia International Physics Centerarekin elkarlanean: **Ricard Solé** fisikaria eta **Celia Rogero** kimikaria izan ziren hizlari.

Baina azken urteetako lerroak sendotzeaz gain, Ernest Lluch Kultur Etxeak proiektu berriak abiatu zituen 2017an. Azpimarratzekoa da, adibidez, **Literatura eta gehiago**. Programa honetan literaturak beste arloekin dituen harremanak aztertzen dira. Lehen saioan **Martín Caparrós**ek eta **Ander Izagirre**ek literatura eta kazetaritzaren arteko loturen hausnarketa egin zuten.

Plus 55 zerbitzuaren eskutik bi berrikuntza izan ziren 2017an. Batetik, **Narratzaileen Txokoa** programak etapa berri bat ireki zuen: **Déjame que te cuente** izenarekin ahozko narrazioaren trebakuntzari indar gehiago eman zion, adituen eskutik eta parte-hartzea landuz. Bestetik, **Osasun jardunaldiak** urrats bat eman zuten: gai jakin baten inguruan (aurten, emakumeen ahalduntzea) hainbat jarduerekin programa aberatsa osatu zen: pelikulak, solasaldiak, antzezlanak, master class-ak, bisita gidatuak... Erabiltzaileek bikain erantzun zioten proposamen berri honi.

Bestalde, 2017an Ernest Lluch Kultur Etxeak, Gastronomiazko Euskal Anaiartearekin batera, **Slow Food Jardunaldiak** antolatu zituen maiatzean, kultura eta gastronomiaren arteko harreman aberatsak jorratzeko helburuarekin.

Eta, ziur aski, Ernest Lluch Kultur Etxearentzat 2017ko berri garrantzitsuena dena alor ezberdinak lotzeko nahi horrekin dago lotuta: **Korner, Kultura &**



Max Montlleo, Via Foran.

Futbol Festibalaren aurkezpena. Irailean Eneko Goia Donostiako Alkateak eta Jokin Aperribay Realeko lehendakariak Ernest Lluch Kultur Etxean egoitza nagusia izango duen proiektu berria aurkeztu zuten. Korneren helburua hainbat jardueren bitartez (solasaldiak, erakusketak, pelikulak, antzezkizunak...) dirudiena baino harreman handiagoa duten bi

mundu horien arteko lotura aztertzea da, betiere, publiko zabal bati begira.

Urtero bezala, noski, Kultur Ekintza atalak antolaturiko zenbait jaialdik ere pisu handia izan zuten Ernest Lluch Kultur Etxeko programazioan: **Poltsiko Antzerkia, Olatu Talka, Literaktum** eta **Abesbatzen Astea** urteko une garrantzitsuak izan ziren.



Ondorengoak, Zirika Zirkus, Easo Plazan.



ERNEST LLUCH

KULTUR ETXEA

JARDUERAK		
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	790	24.046
Antzerkia	24	2.498
Musika	3	243
Zinea	34	2.497
Hitzaldiak eta mahai inguruak	23	953
Erakusketak	6	2.805
Bilerak eta elkarten ekitaldiak	198	3.900
Liburutegiko jarduerak	122	2.296
Plus 55	70	2.073
Gaztelekua	122	1.179
Haurtxokoa	166	3.413
Olatu Talka	22	2.189
ZERBITZUAK		
	BISITAK	
GUZTIRA	138.928	
Liburutegiko bisitariak	119.219	
Haurtxokoa	3.881	
Gaztelekua	5.171	
Kzgunea	10.657	



Prestakuntza **EMAKUMEAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	86	1.448	18	194	68	1.254
2016/17 Ikastaroak	47	787	10	101	37	686
2017/18 Ikastaroak	39	661	8	93	31	568

Prestakuntza **GIZONAK**

	GUZTIRA		EUSKERAZ		GAZTELANIAZ	
	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK	KOPURUA	ERABILTZAILEAK
GUZTIRA	86	500	18	46	68	454
2016/17 Ikastaroak	47	253	10	28	37	225
2017/18 Ikastaroak	39	247	8	18	31	229

BISITAK GUZTIRA: 194.434